

Iepa, Leitzar:

Kaixo Leitzar!

Urtero legez, hementxe datozkigu berriz ere Leitzako pestak. Giro ederrean, lagunartean edota familiarartean gozatzeko egun aproposak dudarik gabe.

Lehenik eta behin, eskerrak ematea dagokit, pasatu berri diren hauteskundeetan gure taldeari babes eman diozuen herritar guztiei. Babes hori, orain, erantzunkizuna eta konpromisoa bihurtu da, eta eguneroko lanarekin hori erakusten saiatuko gara. Era berean, eskerrak eman nahi dizkizuet gure taldeari bozka eman ez, baino herri hau hobetzen joateko elkarrekin bidea egin nahi duzuen guztiei. Zalantzarik gabe, Leitzako herritar guztion artean egin eta guztiontzat izan behar duela sinetsita nago. Denon iritziek, parte-hartzeek, zein konpromisoek lekua izan behar dute, eta honenbestez, denon etxea den Udaletxea irekita izanen duzue leitzar guztiok.

Hori dela eta, dei egiten dizuet datozen urteetan gure herrian irekiko ditugun parte-hartze prozesuetan (batzar irekiak, inkestak, lan taldeak, etab.) esku hartzera. Planteatuko diren gauza batzuekin ados egon edo ez, ideia batzuk edo bestelakoak izan, denon artean erabaki egokiagoak bilatuko ditugula ziur nago.

Herriko pestez gozatu ahal izateko atzetik dagoen lana ikaragarria da. Horregatik, ahaztu gabe, eskerrak eman nahi dizkizuet herritar, talde, eragile zein erakunde desberdinei. Pestak ez lirakeelako posible izango herritar guzti hauen inplikazio eta auzolanik gabe. Milesker denoi!

Bai pesta, zein herriko bizian Torrea elkarteak egindako ekarpena ezin da ahaztu. Eta aipatu beharra da ere azken asteetan jasan duen eraso antidemokratikoa. Gerra zibilaz geroztik, ideia politikoengatik Euskal Herrian gertatu den ondasun konfiskazio haundienaren aurrean gaude. Izan ere, gure Torreaz gain beste 100 herriko taberna eta elkarte bereganatu baititu espainiar Estatuak. Eskubide zibil eta politikoen urraketa onartezina. Langileei eta bolondres lanean aritu diren guztiei nire elkartasun beroena eskaini, eta ideia guztiek libreki adierazteko dugun eskubidea aldarrikatu nahi dut. Torrea libre eta zabalik!

Eta eskubideez ari garenez, pestetan ere denok askatasunez disfrutatzeko dugun eskubidea aipatu nahiko nuke. Arduratsu eta elkarrenganako errespetuz jokatzeari eskatu nahi dizuet. Gure herriko pestak sexu eraso eta jazarpenetatik libre egoteko konpromisoa guztiona baita.

Bukatzeko, aipamen berezi bat gure artean ez ditugunoi. Zuek aske izan arte, ez dugu askatasunik izanen. Maite zaituztegu!

Ongi pasa pestak, ongi etorri kanpotik zatoztenak eta gora Leitzako!

Mikel Zabaleta Aramendia, Leitzako Alkatea.



Leitzako Udala

